

Micaela Zubeldia Agirrezabal

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1917-2001)*

Aurkibidea

Biografia



Zarauzko Munantxo baserrian jaio zen, baina Martin Enea baserrian bizi izan zen alabarekin urte askoz. Lanbidez etxekoandrea zen. Sebastian Aizpurua Ostolazarekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten. Zezenen ikuskizunak zituen gustuko, eta karta jokoan ere ibiltzen zen. "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Zintak

ZAR-105

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 14 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Sansebastian Mujika, Olatz

Pasarteak

1. Gazteak lehen eta orain

- **Erref:** ZAR-105/002
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:00:49. **Bukatu:** 00:01:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Oraingo gazteek askoz askatasun eta aurrerapen gehiago dute. Txikitan trapu zaharrekin egindako panpinekin jolasten zuten. Kaniketan ere ibiltzen zuten, baina kanikak buztinarekin egiten zituzten.

Transkripzioa

- Oraingo eta lehengoko gazteen artean ba al dago diferentziarik?
- Jesus! Horixen baietz. Oain askoze libertade geyo eukitzen due gaztiak guk gendun baiño. Eta aurrerapen geyo're bai: guk ez gendun eukitzen ez telebisiyo, ta holako gauzak ez giñun eukitzen guk.
- Txikitan nola jolasten ziñeten?
- Txikitan gu jolasten giñan trapu zar batzuek hartu, barruan jarri zea batzuek, ardiyan illia, burua iteko; ta geo gaiñetikan beste trapu zar batzuekin iten gendun, pues, apaindu. Harekintxe jostatzen giñan gu. Guk ez gendun izaten... Eta kanikak, uf! Kaniketan'e iten gendun, baiña kanikak kristalezkuakin ta oin bezela ez e? Buztiñakin iten giñun borobilka batzuek, eta haiekintxe.

2. Baserriko lanak eta lehengo Zarautz

- **Erref:** ZAR-105/003
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:02:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Baserriko lana gogorra zen. Zer tresna erabiltzen zituzten aipatzen du.

Oraingo Zarautz gehiago gustatzen zaio. Lehen etxe gutxiago ziren, eskasagoa zen, kanpotar gutxi etortzen ziren.

Transkripzioa

- Baserriko lana oso gogorra al zen?
- Uf! Horixe bai dala gogorra baserriko lana. Goldiakin, segakin, ta danakin lana in ber izaten gendun guk, ta atxurrez asko.
- Zer gustatzen zaizu gehiago: oraingo Zarautz edo lehenokoa?
- O! Oraingua. Oain oso polita dao Zarautza. Leno itxiak'e gutxi zian eta oso exkaxa zan Zauzko herria leno. Kanpotarrak'e gutxi etortzen zian; ta oain, uf, ikusi in bihar da kanpoko jendia nola etortzen dan.

3. Baserriko janaria eta tresnak

- **Erref:** ZAR-105/004
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:02:41. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Lehen baserrian sagardoa egitea gehiago kostatzen zitzaien gaur egun baino. Dendetan ez zuten asko erosten: janari gehiena etxean egiten zuten. Orain baserriko tresnak asko aurreratu dira.</p>

Transkripzioa

- Zu gaztea ziñenean, orain bezalako arazoak ba al zeuden baserrian?
- Ez, ez, ez, ez, ez, ez. Guk basarriyan bagendun sagarrak jotzeko o txikitzeko makina zar bat, baiña harei eskuakin eragin bihar izaten giñun. Oain bezela motorrakin? Ezta pentsatu're. Sagardua iten gendun, baiña asko kostata oaingo aldian.
- Orain dendetan erosten duguna zuek etxean egiten al zenuten?
- Bai, guk dendatikan gauzak gutxi eramaten giñun. Ogiya're itxian iten gendun, labeko suan iten gendun zortzi eguneko ogiya, ta geo tartian talua asko. Talua, ta artua ta holakua jaten gendun asko, eta aurreapena gutxi zeon. Oain bezela segadorak eta, zeak, nola da hori, traktoriak eta ordun ez zaben. Burdi zar bat soiñua juaz, eta soiñua ez bazan nahi aitu, eman ber izaten giñun, pues, oliyo pixkat. Ta horrela.

4. Baserriko abereak

- **Erref:** ZAR-105/006
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Baserrian izandako abereak aipatzen ditu. Bi idi gaizto izan zituzten, eta haiekin izandako komeriak kontatzen ditu. Asko maite zuten beren txakur bat,

ehiztari ona baitzen. Oilategia ere bazuten, eta oilar bat oso gaiztoa zen. Arrautzak biltzeko izaten zituzten gorabeherak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Ze animali zenuten baserrian?

- Guk giñun, ba, beyak eukitzen giñun hamar. Ta egun, bolara batian euki giñun lau idi, ta bi zian txikiyak, baiña gaixtuak. Ta batian anayak esan zian “eaman hitzan idi habek larrea han gora”, ta eraman nitun, ta geo ba, hamaikak aldian eo etxea ekarri ber nitun. Ta jun nitzan billa, eta batek atzetik segi zian. Uuuu, hua bildurra! Iyo nitzan sagar-arbola baten gaiñea, ta beak behetikan beiratu iten zian; ta harek handik alde in arte sagarran gaiñian han eon nitzan. Ta geo itxea etorri nitzan ni haiek gabe, bai azkar asko korrika. Esan nion etorri zanian: “Aizak, nik ez dizkiyat idiak ekarri e? Han mendiyan daudenak”, “Zeatik ez ditun, ba, ekarri?”, “Atzetik segitu in ziaak batek”. Geo bea jun zan, ta beai “lo mismo”, beari’re segi in zion. Eta gero ezin uztarriya jarri, ta ezin in izaten zitun. Bai ba, jotzen hasten zan ta. Gero aitak saldu in zitun. Hua poza hayek saldu zitunian beak. Txintxuak izan bazian ez zitun salduko, gaixtuak zialako eraman in ber izan zitun. Ta geo, bagiñeuzkan hiru txakur, bat arratoi-txakur txiki-txiki bat, oso polita. Ta egun batian, sei arratoi harrapatu erreka baztarrian, ta errenka-errenkan jarri zitun. Ez dakizu ze ederki jarri zitun! Ta hua maiteo giñukan! Basoa juten baldin bazan, trikuak’e billatzen zitun. Beste bat katian lotua eukitzen gendun, ta bestia ehizekua. Egun batian bost erbi harrapatu zitun, ta bat txiki xamarra zan erbiya, ta esaten gendun: “Hau? Hau haundiya iten kayolan jarriko deu”. Jarri genun kayola txiki batian, eta bazeon, ta bazeon, ai zan ederra iten, baiña igesi in zigun. Ta esan genun: “bai, hemen eongo den, ba, ta txakurrakin berriz’e billatuko diñau”. Ibili giñan, baiña ez genun billatu. Hogeita hamar bat oillo’re eukitzen giñun, eta bi oillar: ta bat jokurako eukitzen giñun. Hua gaixtua... danai segika. Bai, hua oillotokitikan ateratzen zanian, hanka jaso bihar izaten giñun guk, mantsuagatik itxea. Ta “Oaiñ’e zer den?”, “Oillarra segika”. Ta esaten nun: “hori ez baldin badezue oillotegitik kentzen, ez naiz geyo jungo oillotogira”. Geo ata pilla bat’e bagendukan, ta hayek juten zian beti erreka, ta ikasi zuen errekan arrautzak iten. Ta iñork ez gendun jun nahi izaten erreka arrautzak jasotzea. “Jan iten dituzue, ba, jan. Ta errekatikan arrautzak ekarri nahi ez. Ala! Goiko errekan hasi eta behearaiño pasa dana, aber zenbat ekartzen dituzuen”. Batzutan bost ekartzen giñun, bestetan hamar, ta ba!

5. Arrautza gordina jan zutenekoa

- **Erref:** ZAR-105/007
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin arrautza gordina jan zuten, eta ez zitzaion batere gustatu. Ordutik ez du berriro arrautza gordinik jan.

Transkripzioa

Beste behin in genun, ba, guk polita: oilluak arrautzak jartzen zituela, ta habiya billatu gendun belar pillan, ta esan genun: “Oi! Behiñ’e arrautza gordiña ez diñau jan, ta arrautza gordiñak jan ber dizkiñau”. Ta “Bai, ogi gabe ta nola jango diñau?”, “Hi jun hai, ta ekarri zan ogi koxkor bat, etxian harrapatu zan”. Hala ekarri zun batek, ahizpa batek belar pill, ogi koxkorra. Ta esan genun: “Bueno, hartu arrautz bana, ta arrautzak jan ber dizkiñau”. Ogi pusketa sartu arrautzetan, ta arrautz gordiña jaten ai giñan ta baaa! Hua nazka azkenian! Akabo gure arrautz-jatia, han bukatu zan. Gordiñik nik geyo ez det jan arrautzik, hua nazka hua! Enteratu baldin bazian gure itxian, guk han belar pillan, orduan, arrautza jan giñula...

6. Etxeko abereak

- **Erref:** ZAR-105/008
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:13:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriri lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Plazan zer saltzen zuten azaltzen du. Oilaskoak saldu bai, baina beraiek gabonetan bakarrik jaten zuten. Etxean untxiak eta txerriak ere izaten zituzten, eta txerrikume gehiegi izaten zituztenean, biberioiarekin ematen zioten jaten aparte gelditzen zenari. Ardiak ere izaten zituzten. Baserrian ateratako barazkiak eta fruituak plazan saltzen zituzten, eta etxerako ere gordetzen zituzten.

Transkripzioa

- Orduan guk arrautzak ez giñun jaten. Ahatianak bakarrik itxian; bestiak saldu plaza ekarrita, gure amak. Bai, ba, hainbeste danantzako zeozer eramateko, ja! Saldu in ber arrautzak eo zeozer. Oillaxkuak’e berdin: itxian hazi oillaxkua, plazaa saltzea, ta guk gabonetan bakarrik oillaxkua jan. Oillo zarren bat eo hiltzen zun, geo hua saltsan ipiñi, ta oillaxkua saldu; ta eguarri egunian oillaxkua etxian jateko. Patata prejitu pilla bat in, bestela gure tripa nola bete hainbeste launei. Koneju pilla bat’e eukitzen gendun, beti-beti ez zian earki eoten, baiña. Ta bat bagenduan, Jesus! Zenbat ume in ete zitun harek! Ta zortzi ta iñ-aldiyan iten zitun beti: “Oaiñ’e umiak in dizkin, ba, gure konejuak. Geo ertetzen hasten zianian habitik, zortzi bat bai. Hori nahiko belarra jan gabe... Oain bezela pentsuakin ta euki ezkeo, jesuuuus! Zenbat, bai, zenbat zea ingo ote zuen hayek? Herri guztirako geuk nahiko koneju haziko giñun. Ta, bueno, hoyek hola pasa zian, bai. Ta geo eukitzen gendun txerriya, ta hua ume itekua; ta hark’e hamar iten zitun, hamar ume. Ta titiak beatzintzako zezkan, ta hamargarrena biberioikin hazitzen gendun. Ta mimatuta beti hantxe, ta ez dakizu nola segitzen duen biberoyana, gosetzen danian, beak etortzen dia jo ta korrika. Bi ardi’re bagañun, ta beste bi ahariak’e bai. Ta bat jokuan ibiltzen gendun. Jo, hua bai zala ona. Zenbat pezeta ekartzen genun guk harengatikan etxea. Ahari jokua in, irabazi. Beste batian, Urdanetako ez dakit nungo ahariyakin apustu in zula, “bueno, in zak ba, jun hai, ba”. Jun zan, irabazi.

Geo beste batek nahi zun geo jokatu, ta gure anayak nahi ez jokatu.
“Zeatik ez diyok, ba, jokatu nahi?”, “ez, oain nekatuta zion, ta deskantsatu in ber din. Hurrungon eramaten danen, berriz’e irabazi dezan”.

- Zer egiten zenuten baserrian ateratako barazki eta fruituekin?
- Hombre, pixkatzuek itxian eukitzen giñun, ta bestiak plaza ekarri, ta plazan saldu. Fruta’re asko eukitzen gendun: melokotoiak, udariak, briñoiak... Fruta asko eukitzen gendun. Ta bestela, ba, bainak, piperra, patata, danetikan... Barazkiyak’e plaza ekarri ta saldu. Ta guk bakarrik ez giñan etortzen zeara, plaza saltzea. Ba ordun jende asko etortzen zan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com